

## ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

**GAIA: 4/2013**

**(...) ANDREAK AURKEZTUTAKO GAIARI BURUZKO AKORDIOA, ..... OSPITALERAKO INGURUMEN-TEKNIKARI BATI EGINDAKO KONTRATUAREN ETA HORREN KONTRA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEK ERANTZUNIK JASO EZ IZANAREN INGURUAN.**

1. 2013ko irailaren 12an, interesdunak **Eusko Jaurlaritzako ..... Sailburuordetzara zuzendutako idazki bat** aurkeztu zuen, ..... Ospitalerako ingurumen-teknikari bati egindako kontratuaren gainean. Idazki horretan azaltzen du berak ere parte hartu zuela postu hori betetzeko deitu zen hautespen-prozesu horretan, eta adierazten du ez dagoela ados hori izapidetzerakoan alderdi batzuk ebazteko erabilitako moduarekin. Idazkian, halaber, interesdunak adierazten du elkarrizketa bat eskatu duela ospitaleko Giza Baliabideen Sailarekin, baina oraindik ez diotela hori egiteko aukerarik eman. Idazkiarekin batera zenbait egiaztagiri aurkeztu zituen, aurrez, 2013ko abuztuaren 22an, ..... Ospitaleko Giza Baliabideen zuzendariaren eta zuzendari kudeatzailearen aurrean alegazioak aurkeztu zituela, eta 2013ko abuztuaren 21ean Giza Baliabideen zuzendariari eta zuzendari Nagusiari alegazioak aurkeztu zizkiela egiaztatzen dutenak. Idazkian adierazten du horietako batek ere ez duela erantzunik jaso aurkeztu zituenetik iragandako denbora-tartean.
2. Lehen aipatutako idazki horrekin batera –eta sarrera-erregistro beraz–, **Etika Publikorako Batzorde honi (aurrerantzean, EPB) zuzendutako beste idazki bat** ere aurkeztu zuen. Horren bidez eskatzen zuen "kontuan har zedila horrekin batera jasotako eta ..... Sailburuordetzaren aurrean aurkeztutako alegazioa", aurreko puntuan adierazitakoa alegia. EPB honi aurkeztu zion alegazioa honako hauek zaintzeko eta sendotzeko xedea duelako batzordeak:
  - a) Herritarrek erakunde-printzipioekiko duten konfiantza.
  - b) Kargu publikoen jarduera-balioak, hala nola zuzentasuna, zintzotasuna, inpartzialtasuna, objektibotasuna eta gardentasuna eta esparru juridikoarekiko eta pertsona guztiekiko errespetua.
  - c) Inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kontratazio-prozedurei dagokienean bereziki.
  - d) Zintzotasuna eta objektibotasuna, ez dadin zalantzarik edo susmorik geratu hartutako erabaki jakin batek erabakia hartu duen pertsonari, haren senideei edo

ezagunei mesede egiten diela edo erabakia interes partikularren arabera hartu dela pentsarazten duenik.

- e) Pertsona edo erakunde publiko zein pribatu batzuei eragiten dieten edo horien aldeko favoritismoz jardun dela pentsarazten duten jarduerak edo ekintzak ekiditea.

## **ERABAKIA:**

### **I. AURREKARIAK**

1.- Aurkeztutako idazkian interesdunak azaltzen duen gertakari-zerrendaren arabera, LANBIDE–Euskal Enplegu Zerbitzuak, 2013ko ekainaren 12an, ingurumen-teknikari batentzako postu bat eskaini zuen publikoki ..... Ospitalerako; eskaintza hori, alabaina, ez zen Osakidetzaaren web-orrian argitaratu.

2.- 2013ko ekainaren 17an, interesdunak deialdi horretan parte hartzeko **eskabidea aurkeztu** zuen, eta, hurrengo egunean, *curriculum vitae* osoa igorri zion ..... Ospitaleko zuzendari kudeatzaileari; izan ere, interesdunaren hitzetan, LANBIDEk diseinatutako formatuak ez zuen aukerarik ematen haren ibilbide akademikoari eta lanbide-ibilbideari buruzko hainbat alderdiri buruzko xehetasunik emateko.

3.- Interesdunaren esanetan, 2013ko abuztuaren 9an LANBIDEren taula elektronikoan argitaratu zen **ez zutela aukeratu ingurumen-teknikariaren posturako**, "hautespene-elkarrizketa baterako deialdirik jaso ere egin gabe". Alegazioan, gainera, adierazten du LANBIDEren lan-fitxan jasotako merezimenduak soilik hartu zirela kontuan, "e-mailez ..... Ospitaleko zuzendari kudeatzaileari igorritako" *curriculum vitae* osoa kontuan hartu gabe.

4.- Argitaratutakoa ikusi ostean, ..... Ospitaleko Giza Baliabideen Sailarekin harremanetan jarri zen **hautatutako pertsonaren datuen**, puntuazioen, baremoen eta profillaren berri izateko asmoz. Unitateko arduradunek ez zioten informazio hori eman, "daturik eman ezin dutela" esanez.

5.- Interesdunak uste du ez direla bete Osakidetzan **langileak hautatzerakoan jarraitu behar diren publizitatearen, berdintasunaren, merezimenduaren eta gaitasunen printzipioak**, ez eta **erakunde publikoak berak aldi baterako langileak kontratatzeko zerrendak lantzeko eta kudeatzeko ezarritako arauak ere.**

Zentzu horretan, adierazten du "edozein kontrataziotan, hori aldi baterakoa izanda ere, lan-esperientziako urteak, ikasketa-espedienteak, prestakuntza akademikoa eta abar balioetsi behar direla", eta hautespen-prozesuko emaitzak argitaratu egin behar direla.

6.- Interesdunak "aurreko emaitza baliogabetu eta hautespen-prozesuan balorazio berri bat egiteko" eskaera egin zuen, bai ..... Ospitaleko Giza Baliabideen zuzendariari eta zuzendariari abuztuaren 22an igorritako alegazio-idazkietan, bai ..... Ospitaleko Giza Baliabideen zuzendariari eta zuzendari nagusiari abuztuaren 21ean igorritako alegazio-idazkietan.

7.- 2013ko irailaren 12an, interesdunak **idazki bat aurkeztu zion EPB honi, aurrez ..... Sailburuordetzan aurkeztu zituen alegazioak "kontuan har zitzala" eskatzeko.**

## **II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARI PLANTEATUTAKO GAIA**

1.- EJK –Etika eta Jokabide Kodea–, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartua 2013ko maiatzaren 28an egindako bileran, politikaren zentzu etikoa indarberritzeko xedez sortu zen, eta herritarrek beren erakundeetan konfiantza berreskuratzea du jomuga.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen zehazten du kodeak, horien jarduerak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezten dokumentu horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Azken xedea da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Gobernuaren irudi instituzionala zainduz, haren eraginkortasuna indartuz eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza higitzea saihestuz.

2.- EJK oinarritzko bost balioen inguruan taxutu da –Osotasuna, Bikaintasuna, Politika eta Kudeaketa bat etorraraztea, Lidergoa eta Berrikuntza–, eta funtsezko sei printzipioen inguruan: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna, Kudeaketari lotutako Erantzukizuna, Gardentasuna eta Gobernatze irekia, Onestasuna eta Desinteres subjektiboa, Errespetua eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, kodeak jokabide, jarrera eta portaera ugari aipatzen ditu –kontuan hartu edo saihestu beharrekoak–, eta horiek dira, hain zuzen ere, EPB honek erreferentzia gisa ezarri behar duen parametroa, beren borondatez kodeari atxikitako kargu publikodunek edo kodearen zehaztapenak egiaz betetzea nahi duten hirugarrenek batzorde honen esku jartzen dituzten auzi eta dilema etikoei erantzuteko orduan.

Horri dagokionez, kodeak 16.3. ataleko lehenengo puntuan ezartzen du EPB izango dela “oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauzatzeko prozedura jasoko du”. Era berean, atal bereko bosgarren puntuak ezartzen du batzordearen ardura izango dela “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”.

3.- Interesdunak EPB honi aurkezten dion egoerak Administrazio Publikoaren –eta, zehazki, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Euskal Osasun Zerbitzuaren– jardun bati egiten dio erreferentzia, **aldi baterako ingurumen-teknikari bat kontratatzeko langileen hautespen-prozedura baten baitan gauzatutako jardunari alegia.**

4.- EPB honi igortzen dion idazkian nolabaiteko nahastea badago ere, "idazkiarekin batera jasotako eta ..... Sailburuordetzari aurkeztutako alegazioari" erreferentzia egiten dionez eskarian, ulertzen da ingurumen-teknikari bat kontratatzeko gauzatutako **hautespen-prozesua berraztertzeko eskaria egiten duela lehenbizi**, "aurreko alegazioan adierazitakoarekin batera, legearekiko berdintasuna izateko eskubidea urratu dela uste duelako". Gainera, "gazteen egoera soziolaborala kontuan har dadila, eta, postu publikoa denez, gaitasun handienak dituen pertsonari eman diezaiotela" eskatzen du idazkian.

5.- Horrekin guztiarekin batera, interesdunak dio **ez duela inolako erantzunik jaso** ..... **Ospitaleko Giza Baliabideen zuzendariari eta zuzendari kudeatzaileari igorritako alegazioen gainean, ez eta eduki berarekin** ..... **Ospitaleko Giza Baliabideen zuzendariari eta zuzendari nagusiari igorritakoen gainean ere.** Baita ere, gehitu du elkarrizketa bat eskatu ziola ..... Ospitaleko Giza Baliabideen Sailari, eta "gaur arte ez duela erantzunik jaso".

Interesdunak haren arabera alegazioak aurkeztu eta elkarrizketak eskatu zituen egunetik oso denbora laburrera egin ditu adierazpen horiek, eta, beraz, hautespen-prozesuarekiko errekurtsotzat hartu behar balirateke alegazio horiek, horiei erantzuteko denbora-tartea amaitu gabe egongo litzateke artean.

6.- Hala eta guztiz ere, interesdunak haren eskabidean jasotzen duen gertakari-zerrendan ez da zehazten **Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde instrumentaletako kargu publikodunen edo behin-behineko langileen jokabide, jarrera eta portaera zehatzik, Etika eta Jokabide Kodeko (aurrerantzean, EJK) printzipioen eta balioen aurka jardun dutela erakusten duenik.** Idazkian modu orokorrean aipatzen dira

jarduera publiko guztietan jarraitu beharreko printzipioak eta balioak, eta modu orokorrean adierazten da, baita ere, ingurumen-teknikari bat kontratatzekeko prozedurak langile publikoak kontratatzekeko ezarritako prozedura-arauak eta arau materialak bete behar dituela oro har, eta, zehazki, Osakidetza erakunde publikoak horretarako ezarritako jarraibideak.

### III. KONTSIDERAZIOAK

1.- Aurreko erabakietan adierazi dugun eran, hasiera-hasieratik EPB honen jarduera-esparrua zehaztea komeni da, eta garbi adierazi behar da horren xedea zein den, honako hau hain zuzen ere: Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde instrumentaletako goi-kargudunen eta behin-behineko langileen jokabideak, jarrerak eta portaerak ebaluatzea eta horiei buruzko irizpenak ematea EJKren arabera, eta ez horien zilegitasuna edo zuzentasun juridikoa epaitzea. Garbi adierazi behar da ezin dela EPB honengana jo Administrazio Publikoak emandako egintzak, ebazpenak eta arauak aurkaratzeko bide berriak **arbitra ditzan indarrean dagoen lege-sistematik kanpo eta beste administrazio- edo jurisdikzio- instantzia batzuei dagozkien botereak eta ahalmenak modu bidegabean bereganatuz**. Modu horiek, gainera, antolamendu juridikotik kanpo dauden heinean, ez lukete inolako eraginik izango egintza eta arau horien baliozkotasunaren eta eraginkortasunaren gainean.

2.- EPB honi helarazitako auziari dagokionez, ..... Ospitalerako ingurumen-teknikari bat kontratatzekeko prozesuaren gainean ..... Sailburuordetzari aurkeztutako alegazioak aipatzen ditu interesdunak, eta kontratazio hori **izapidetzeko gauzatutako jarduerak baliogabetzeko eskaria egiten du, "legearekiko berdintasuna izateko eskubidea urratu dela" eta "postu publikoa denez, gaitasun handienak dituen pertsonari eman" behar litzaiokeela uste duelako**. Soilik hirugarren puntu gisa eskatzen du "bete daitezela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren Kode Etikoan jasotako arau etikoak eta jokabide-arauak".

4.- Interesdunaren **eskabideko lehenengo bi gaiak** –gauzatutako jarduerak baliogabetzat jotzea eta gaitasun egokienak dituen pertsona kontratatzea– hautespen-prozesuarekin eta interesdunak prozedura izapidetzeko moduarekiko eta horren emaitzarekiko duen desadostasunarekin lotuta daude, argi eta garbi. Hortaz, gai juridikoak dira bi horiek, eta, horiek ebazteari dagokionez, **antolamendu juridikoan zehazten dira horiek aurkaratzeko bide administratiboak eta judizialak, eta**

**zorrotasunez esleitzen zaie horretarako eskumena organo jakin batzuei.** Batzorde honek ezin du eta ez du horien lana eragotzi behar.

Administrazio Publikoak emandako arauak eta egintzak, deuseztasun- edo deuseztagarritasun-akatsak izan ditzaketanak, aurkaratzearekin lotutako alegazioak aztertzea, EPB honen eginkizunez haraindi joatea izango litzateke, batzorde hau ez baita –eta ezin baitu izan– administrazio-egintzak berraztertzeko instantzia bat. Eta, horrez gainera, organo eskuduna aurkeztutako aurkaratzea aztertzen ari dela pentsaraz liezaioke partikularrari horrela ez denean, eta lortu nahi duen helbururako aurreikusita dauden bideak zein diren jakin gabe gera liteke –bai eta antolamenduan horretarako ezarritako epeak amaitzen utzi ere–, haren legezko eskubideen eta interesen kaltetan. Ondorioz, EPB honek ez du aztertuko interesdunaren arabera antolamendu juridikoaren aurkakoak diren administrazio-jardunen legezkoatasuna.

5.- Aitzitik, interesdunak ..... Sailburuordetzari aurkeztutako eta EPB honi helarazitako idazkiko **hirugarren gaiak** espresuki egiten dio erreferentzia **EJKn jasotako printzipioak eta jokabideak betetzeari.**

Horri dagokionean, aurreko puntuetan adierazi dugun eran, interesdunaren idazkiek modu orokorrean egiten diete erreferentzia EJKn jasotako balioei eta printzipioei –hala nola herritarrek erakunde-printzipioekiko duten konfiantza zaintzea, zuzentasuna, zintzotasuna, inpartzialtasuna, objektibotasuna eta gardentasuna eta esparru juridikoarekiko eta pertsona guztiekiko errespetua, eta norberaren mesedetan edo senideen edo ezagunen mesedetan egintzak gauzatzeko debekua–, baina **ez du zehaztasunez adierazten haren ustez EJKn jasotako zer printzipio edo balio urratu diren, edo zer goi-kargudunek edo behin-behineko langilek urratu dituen horiek, ez eta zer jardun, jokabide edo jarrera izan diren, hala izatekotan, urraketa hori eragin dutenak.** LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak deitutako lan-eskaintzan parte hartu zuen interesdunak, baina gerora egindako jarduera guztiak –*curriculum vitae* osoa igortzea, telefono-bidezko deiak eta idatziz aurkeztutako alegazioak– deialdia egindako jardun erakunde publikoa ez zen beste batekin gauzatu zituen, OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuarekin alegia. Erakunde horretako arduradunek, hasiera batean, ez zuten zerikusirik 2013ko ekainaren 13ko hasierako iragarkiaren bidez hasitako hautespen-prozeduraren izapideekin. Iragarkian, ".....-rako enpresa publiko" baterako ingurumen-teknikari baten postua aipatzen zen.

6.- Administrazio Publikoak guztiz legearen eta zuzenbidearen mende egon behar duela xedatzen duen arau orokorrearekin bat, Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde

instrumentaletako goi-kargudunek eta behin-behineko langileek administrazio-ekintza taxutzen duten egintzetan eta prozeduretan parte hartzerakoan, zorrozki bete behar da antolamendu juridikoak ezarritako esparrua. Baina horiek EJKra atxikitzen diren unetik aurrera, gainera, horrek jasotako balioen eta printzipioen arabera gauzatu behar dute parte-hartze hori. **Neurri batean bi arau-mota horiek printzipio komunetan oinarritzen badira eta, neurri handi batean, jarraibide berak badituzte ere, ez dira nahasi behar, ez haien edukiei dagokienean, ez eta horiek ez betetzeak dakartzan ondorioei dagokienean ere.** Izan ere, gerta liteke juridikoki akatsgabea den jardun batek EJK urratzea, eta, alderantziz, gerta liteke baita ere deuseztasun- edo deuseztagarritasun-akatsak dituen egintza bat onartzeak edo prozedura bat izapidetzeak ikuspegi etikotik arazorik ez izatea.

Hau da, EPBk esku har dezan, EJKn jasotako printzipioak, balioak eta estandarrak urratu ahal izan dituztela pentsarazten duten jokabideak, jarrerak eta portaerak egon behar dute, horiek **antolamendu juridikora egokitzen direla edo ez direla iritzita ere.** Izan ere, azkeneko baldintza hori ez du EPBk balioetsiko, egiaztatutako jokabideak lege penalean tipifikatuta daudela eta, hortaz, Fiskaltzari horien berri eman behar zaiola irizten ez badu behintzat.

**Edonola ere, EJK urratu dela edo ez dela ebazterakoan, ez dira kontuan hartuko egintza, arau eta prozedura administratiboak berraztertze beharra ezartzeko erabiltzen diren alderdi berak,** horrek guztiz hutsalduko bailituzke batzorde honen eginkizuna eta jokabide etikoa zaintzeko duen eginbehar espezifikoa.

7.- Interesdunak EPB honi aurkeztutako auziari dagokionean, **ez da zehazten goi-kargudun edo behin-behineko langile jakin baten jokabide zehatzik argi eta garbi EJK urratu duela pentsarazten duenik. Jarraitutako prozeduraren legezkotasunarekiko eta prozeduratik suertatutako emaitzekiko desadostasun batzuk soilik adierazten dira,** eta ziurtzat jotzen da horrek EJK urratzea ekarri behar duela, horren arabera jardunez gero urratutzat jotzen diren prozedura-arauak ez zirela urratu izango ulertzen baitu interesdunak.

Hain zuzen ere, EPB honi igorritako idazkia arretaz irakurriz gero, agerian geratzen da interesdunak ez duela aipatzen Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde instrumentaletako goi-kargudun edo behin-behineko langile jakinek gauzatutako jokabide, jarrera eta portaera zehatzik, haren iritziz EJKren arabera aztertu behar denik, bertan jasotako balioak edo printzipioak urratzen dituen egiaztatze aldera; horren ordeztu, haren ustez deuseztasun- edo deuseztagarritasun-akatsen bat duten

administrazio-jardun batzuk aurkaratzen ditu, eta horri guztiari amaiera emateko soilik aipatzen du EJK, ziurtzat joz legezketasun-akatsen bat duen egintza administratibo orok urratu behar duela nolabait EJK.

8.- Edonola ere, kontuan hartuta interesdunak ahalegin handiak egin dituela 2013ko ekainaren 13an LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuak aldi baterako ingurumen-teknikari bat kontratatzeako argitaratutako eskaintzaren bilakaeraren eta EAeko erakunde-administrazioak izapidetutako hautespen-prozesuaren emaitzen berri izateko, harrizkeoa da eskatzen zuen informazio hori ez lortu izana. Izan ere, bestelako arrazoirik ezean, espedientea izapidetu duen administrazio-organoak ez lioke informazio hori ukatu behar. Beste alde batetik, esan behar da ez dela oso onargarria interesdunak erantzunik ez jaso izana EAeko erakunde-administrazioko zenbait organori idatziz aurkeztutako alegazioen gainean, eskuratu nahi duen informazioa eskuratzeko edo, hala badagokio, legez dagokion errekurtsioa aurkezteko, zer organotara jo behar duen esateko besterik ez bada ere.

Administrazio-egintzaren bi urritasun horiek ez badira dagoeneko zuzendu –EPB honek ez daki bere esku-hartzea eskatzen duen idazkia aurkeztu ostean horiek zuzendu diren–, dagokion organoak edo dagokien organoek ahal bezain laster zuzendu beharko lituzkete.

9.- Dena den, aurreko puntuan aipatutako bi urritasun horiek zalantzarik gabe administrazio-jardunaren gardentasuna lausotzen badute ere, ezin da esan kargu publikodun edo behin-behineko langile jakin batek modu nabarian EJK urratu duela adierazten dutenik. Gardentasunaren balioa, hasiera batean, administrazio-erakundetzat jotako orok aldarrikatu behar du, baina ezin da esan horrek beti izaera absolutua duenik erakunde hori zuzentzen duten kargu publikodunei dagokienean. Eusko Jaurlaritzaren eta haren erakunde instrumentalen baitan, hain zuzen ere, kargu publikodunek eta behin-behineko langileek –EJKk haren 5.2.3. atalean xedatzen duenari jarraiki– "herritarrei informazio fidagarria eta osoa eman behar diete hartzen dituzten erabakiei buruzko arrazoez, azterlanez, ikerketez eta prozedurez". Baina horrek ez du esan nahi EJKri atxikitako goi-kargudun guztiek eta horietako bakoitzak pertsonalki inplikatu behar dutenik herritar interesdunei, haiek nahi duten moduan eta baldintzetan, espedienteei buruzko informazioa helarazteko lanean. Eta are gutxiago horrelako eskakizun bati pertsonalki ez erantzuteak nahitaez EJK urratzea dakarrenik. Herritarrek administrazio-erregistroetako eta espedienteei buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea dute horietan interesdun-izaera badute, eta erakundeak



eskubide hori gauzatzen lagundu behar die, baina horrek ez du esan nahi eskubide hori urratzen den bakoitzean goi-kargudunen bat EJK urratzen ari denik.

Beste alde batetik, interesdunak ezin du pentsatu OSAKIDETZako kargu publikodunek EJK urratu dutenik bere garaian *curriculum vitae* osoa igorri zielako –LANBIDEn eskaintza publikoan ezarritako prozeduratik kanpo, esan behar da–, eta kontuan hartu ez dutelako. Hautespren-prozesuaren diseinuak urritasunak izan ditzake ikuspegi juridikotik, eta aurkaratzeko modukoa izan liteke bide administratibotik zein jurisdikzionaletik. Baina horrek ez du esan nahi prozesua onartu duten edo horren arabera jarduten duten kargu publikodun guztiek EJK urratzen dutenik.

Interesdunak, bestalde, ezin du pentsatu EJKren kontrakoa denik kargu publikodun batzuei elkarriketa pertsonala eskatu eta horiek eskabideari erantzun ez izatea. Egia da honako hau xedatzen dela EJKren 12. puntuan goi-kargudunei eta behin-behineko langileei dagokienean: "Zuzentasun finez eta begirunez arreta emango diete herritarrei, eta haien proposamen, iradokizun eta kexak aktiboki entzungo dituzte", eta "iradokizun, kexa zein interpelazio oinarridun guztiak kontuan hartu beharko dituzte". Baina EJKn jasotako bi agindu horiengatik Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde instrumentaletako kargu publikodunek bilera formal bat egin beharko balute herritar batek hala eskatzen duen bakoitzean, administrazio-ekintza oztopatuko litzateke eta zerbitzu publikoek ezingo lukete behar bezala funtzionatu.

Horren guztiaren ondorioz, EPBk honako erabaki hau hartzen du:

## **ERABAKIA**


**Lehena.-** Ez aztertzea interesdunak aurkeztutako alegazio juridikoak, ..... Ospitalerako ingurumen-teknikari bat kontratatzeari buruzkoak. Izan ere, administrazio-prozedura baten baitan emandako zenbait egintza zuzenbidearen arabera berraztertze eskaria egiten du alegazio horietan, eta ez kargu publikodun edo behin-behineko langile baten jokabideak, jarrerak eta portaerak ebaluatzea Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 28an onartutako EJKren arabera.

**Bigarrena.-** Interesdunari adieraztea administrazio-egintzak, -arauak eta -prozedurak berraztertzea lortzeko, antolamendu juridikoan aurreikusten direla aurkaratzeko bide administratiboak eta judizialak, eta, zer prozedura zehatz jarraitu behar den zehazteko,

indarrean dagoen legediari jarraiki, dagokion administrazioarengandik haien eskubideak gauzatzeko behar duten informazioa jasotzeko eskubidea dutela interesdunek.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau OSAKIDETZAKO kargu publikodunei helaraztea, interesdunaren alegazioetan aipatzen direnei hain zuzen, behar duten informazio guztia izan dezaten 8. kontsiderazioan adierazten diren funtzionamendu-urritasunak zuzentzeko.

**Josu Iñaki Erkoreka Gervasio**  
**Etika Publikorako Batzordeko presidentea**



**Gasteizen, 2013ko abenduaren 3an.**